



## **Euskal joskeraren mito kaltegarriak (II) Euskararen hitz-ordena librea**

*Bittor Hidalgo*

*Hemen duzu, irakurle, aurreko alean azaldutakoaren segidan euskaraz idazteko darabilzkgun arauak eta moldeak aztertu eta modu arin, ulergarri eta aberats batean idazteko proposamenen jarraipena.*

*1. elementu laburrak + 2. aditza + 3. esaldiko elementu luzeenak*

Formula honetan laburbiltzen genuen aurreko artikuluan,<sup>1</sup> izan zitekeena, euskal joskeraren ordenamendu joera nagusietakoa. Formula berau nolanahi, ez da izango joera estatistiko bat baino, aukera estilistiko bat, beti idazle/hiztunaren esku, testu ahalik eta ulergarrienak sortzeko. Eta izan ere, Euskaltzaindiak ere orain ez asko gogorarazten digun legez,<sup>2</sup> euskara da, eta izan da beti, guztien gainetik, ordena libreko hizkuntza bat.<sup>3</sup>

**Altuberen axioma  
frogatu gabe bat:  
ordenamendu bat  
⇒ galdegai bat**

Garbi zuen Altubek, bere legeak betetzen ez zirela gure literatur tradizioan, eta ahozko erabileraren haizatuko zuen hauen sustrai eta legitimitate bakartzat. Era berean ordea, hasieratik aitortuko du Altubek, bere ondorengo guztiek legez, ahozko erabilerak ere ez dituela gordetzen lege horiek esaldi luzeetan. Geroztik nolanahi, bada axioma gure artean, esaldi laburretan galdegai legea peto betetzen dena ahozko erabileran. Baina hori ere ez da egia izango. Eman dezagun hiru elementuko esaldi bat, aditz konposatua eta bi konplementu: *izango da, aitona, Mikel.*

Elementu hauen sei konbinaketa izango dira posible euskaraz,<sup>4</sup> eta Altuberen legeen arabera, garbi egongo da beti zein den galdegai ordenamenduetako bakoitzean, hitzunak enfatizatu nahiko duen zati hura, aditzaren aurre justuko elementua lehen lau esaldietan, aditza bera, aditzaz hasitakoetan (maiuskulaz):

- (1) Mikel AITONA izango da.
- (2) MIKEL izango da aitona.
- (3) Aitona MIKEL izango da.
- (4) AITONA izango da Mikel.
- (5) IZANGO DA aitona Mikel.
- (6) IZANGO DA Mikel aitona.

Ez dugu dudan jarriko, euskaraz litekeena denik, galdegai eta enfatizazio horiek ematea segida horietako bakoitzean. Baina horrezaz gain, galdegai legeek presuposatzen eta arautzen dutena da, galdegai horiek bakarrik aurki ditzakegula ordenamendu bakoitzean, derrigorrez dagoe-la lotua ordenamendu bakoitza galdegai jakin bati. Eta hori jada ez da horrela izango. Kontuak ez dira horren linealak izango, eta esaldi bakoitzaren galdegaitasunen interpretaziorako, izango dira ordenarenaz gain, kontutan hartu beharreko faktore gehiago. Zeinen artean, bederen: 1. esaldiaren testuingurua; 2. hitzunaren entonazioa eta intentsitate-azentua (enfatzazioa); eta 3. hitzunak elementuen artean egindako pausaldiak edo etenak.

**Ordena librea  
esaldi laburrean.  
Galdegai laburra  
aditz ondoretik  
emateko ere**

Eman dezagun ari garela, ume arteko joko batean, edota bertsolari saio batean, ofiziotako lanak banatzen,<sup>5</sup> eta *Mikelek*, ume edo bertsolari, hartu beharko duela *aitonaren* pertsonaia. Printzipioz, aurkezleak askatasun osoz ordenatu ahal izango lituzke hiru elementuak esaldian. Ordea, predikatu nahi duena, bereziki bada *AITONAREN* papera, eta ez beste bat, egin beharko duela *Mikelek*, Altuberen irizpidean ordenatu ahal izango lituzke elementuak bakarrik bi modutara [/ marra batez adierazirik esaldian seguruenera emango litzatekeen pausa, eta (/) parentesi arteko marraz, pausa ez hain seguru bat]:

- (7) Mikel / AITONA izango da.
- (8) AITONA izango da (/) Mikel.

Nahikoa izango da, ordea, belarriak pixkaren bat irekitzea, konturatze-ko, ez direla ordenamendu horiek maizenik entzuten zaizkionak haur euskaldun petoenari bere jolasean, edota esateko, Alfontso Irigoien euskaltzainari, 60etako hamarkadan aurkeztu zituen bertso saio ugarietako edozeinetan.<sup>6</sup> Baizik eta, aldiz:

- (9) Mikel (/) izango da / AITONA.

Itxurako ordenak, galdegai labur askoak ere, ondo markatuak erakusten dituztenak aditzaren ondoretik, intentsitate-azentu eta enfatizazio bereziz. *AITONA* bezalako galdegai enfatizatuaren aurretik, beti emango da, pausaldi edo entonazio aldaketa nabari bat aurreko esaldi zatiarekiko.

Galdegaiaren aurreko hitzak gorantzako entonazioz amaituko dira, eta hala iragarriko dute ondorengo prediku zatiaren garrantzi berezia.<sup>7</sup> Eta entonazio lege bera aurkituko genuke oraindik, *AITONA* bera enfatizatu nahita, euskaldunak, nahiz bakanago,<sup>8</sup> zuzenean aditzaz has litzakeen esaldi segidetan, nola:

(10) Izango da Mikel / AITONA.

(11) Izango da / AITONA / Mikel.

**Esaldia zenbat  
eta enfatizatuago,  
orduan eta  
atzerago  
galdegaia**

Kurioski, galdegaia aditzaren aurretik ematen duten egitura altubetarren aldean, hainbat eta ugariago aurkitzen ditugu euskaldunaren ahotan, galdegaia aditzaren ondoretik daramatenak, zenbat eta enfatizatuago ematen duen honek bere predikua, eta ez alderantziz. Ez gara ari asmatzen. Ordenazio horiek ez dira erdarazkoak, esanak esan Altubek.<sup>9</sup> Ordea, eskola Azkue-Altubetarrak ukatu nahi dizkigun egitura horiek (5 aukeretatik 3), dira, aldiz, gehien hurbildu ohi zaizkionak, estrategia komunikatibo guztien ardatz den MARKU PREDIKATIBOIA  $\Rightarrow$  PREDIKUA segidari (MINTZAGAIA  $\Rightarrow$  GALDEGAIA). Soilik hurbiltasun honek eman ahal du kontu, halako egitura gaitzetsiek oraindik ere ahozko euskararen gozatzen duten arrakastarena. Eta, hain justu, literatura klasiko gaitzetsian, aurkitu dugun berbera. Euskarari ordenazio-aukera horiek ukatu nahi izatea, gaur egun egiten den bezala, da ukatzea euskararen atal komunikatiboena.

Euskal hiztunak libre behar du izan hiru elementuko esaldian 5 ordenamendu horietako zeinahi erabiltzeko. Bere ustean eta aukeran, momentu bakoitzean hobeto egokitzen zaiona bere predikuaren baldintza zehatzeti. Estadistika fidagarri batek lagundu beharko liguke gero hobeto ulertzen, zein ordenamendu litzatekeen, edo lirartekeen, erabilienak, testuinguru zehatz bakoitzean, zein modu, entonazio eta pausaldi artean erabiltzen duen hiztunak, eta ondorioz zein egoki lortu dituen bere helburu komunikatiboak. Guzti hori ezagutzea, ordea, maiz gerta liteke egoerak eta hiztunaren aukera subjektiboak berak izan litezkeen bezain konplexua, eta zaila zeharo sistematizatzen, orientabide beti nahikoa jeneralez gain.

**Ordena gaitzetsia**

Bada, ordea, hiru elementuko esaldian ere seigarren ordenamendu bat, aurreko bostak ez bezala, gaitzesteko modukoa. Predikatu nahi denean, *AITONAREN* ofizioa izango dela (eta ez beste bat) *Mikelek* bete beharko duena, ez da izango batere ohizkoa aurkitzea euskaraz, entonazio gailur horrekin, matematikoki eta gramatikalki posiblea litzatekeen seigarren ordenamendua:

(12) (?) AITONA (/) Mikel izango da.

Beti gertatuko baita oso bitxia euskaraz, behin galdegaia eman ezkerre esaldian, honek ez arrastatzea bertan atzetik erantsita esaldiko aditza, eta aldiz beste elementu batzuk tartekatzea, bien artean. Eta hala da, eta izan da, 12 bezalako egitura bat oro har baztertua, euskaldunen ahozko erabileran, nola literatura klasikoaren altxor nagusian. Zergatik, ordea?

**Azkue-Altuberen  
galdegai-legea  
berformulatzen**

Galdegaia euskaraz joan ohi da aditzaren aurre justuan, edota maizenik aditzaren ondoretik nonahi.

Euskal aditzak joera nabarmena du (ik. aurreko artikulua) bigarren elementu bezala agertzeko, bere aurreko beste labur bati erantsita. Ez ordea edozeini, 12 moduko esaldiek erakutsi bezala. Baizik eta joeraz, esaldian bere aurrean emango den elementu enfatizatueneri soilik. Hiztunak, galdegaia, elementu enfatizatuena, ematen badu esaldian, bere aukeran, aditza eman aurretik, aditza honi erantsiko zaio (ia) derrigorrez, eta ez beste bati. Horregatik gertatzen dira horren bitxiak 12 bezalako esaldiak.<sup>10</sup> Ez da finean, ordena gaitzetsiaren fenomeno hau besterik, Azkue eta Altube mugatzen eta interpretatzen ahalegintzen direna, nahiz oker, beren galdegaiaren lege nagusiarekin.

Galdegaia eman ahalko da euskarazko esaldian aditza eman aurretik, eta orduan, (ia) derrigorrez erantsiko zaio ondoretik aditza (agerian emango bada esaldian), Altubek predikatu bezala. Eta hala gertatu ohi da maiz ere, galdegai laburreko esaldietan. Baina galdegaia joan ohi da, eta liteke, euskaraz aditzaren ondoretik ere nonahi. Nahikoa da hiztunak aditza ematea esaldian galdegaiaren aurretik, multzo foniko independente batean, gorantzako entonazio batez. Maiz egin ohi duen bezala alde eta aldi guztietako euskaldunak, zeinahi luzeratako esaldietan. Are maizenik ere beharbada. Eta ziur, hainbat eta maizago, zenbat eta luzeagoa eta konplexuagoa gertatu esaldiko galdegaia, nahiz ez orduan bakarrik. Horixe baino ez da komunikazio estrategia egoki batek aginduko ligu-keena.

**Ordenamendu bat  
beraren galdegai  
aukera  
desberdinak**

Beste modu batera bilduaz orain arte esanak, Altuberen predikazioen kontrara, esaldi-ordenamendu batek ez du berez argituko, zein den esaldi horretako galdegaia. Eta testuinguru desberdinetan, eta hiztunaren entonazio modu eta pausaldi desberdinen arabera, izan liteke galdegai hori aditzaren aurre justuko elementua, aditza bera, edota ondorengo zeinahi, aditzak ixten ez badu esaldia. 13ko ordenamenduan, 14, 15 edo 16:

- (13) Mikel izango da aitona.
- (14) MIKEL izango da (/) aitona.
- (15) Mikel (/) izango da / AITONA.
- (16) Mikel / IZANGO DA (/) aitona.

Ondorio honek, berak bakarrik ere, sustraitik usteltzen du Altuberen usteen sistema osoa.

**Ordena librea  
galde-erantzune-  
tan ere, galdegaia  
aditzaren  
ondoretik  
emateko**

Bukatzeko, esaten da, beste inongoak ezta ere, Altuberen legeak izango lirakeela bederen galde-erantzun jokokoak. Baina hori ere ez da egia izango.<sup>11</sup> Eman dezagun segidako galdera:

- (17) Nor etorri da zurekin?

Halako galdeetan maiz gertatzen da euskaraz ere, hiztunak erantzutea,

galdegai izan den esaldi zati soil harekin, edota aditza errepikatu gabe, erantzun hauetako edozeinekin:

- (18) MIREN eta EDURNE.
- (19) Nirekin / MIREN eta EDURNE.
- (20) MIREN eta EDURNE (/) nirekin.

Era berean gerta liteke arrunta izen horiei aditza erastea, egitura altubetar zuzenean:

- (21) MIREN eta EDURNE etorri dira.
- (22) Nirekin / MIREN eta EDURNE etorri dira.
- (23) MIREN eta EDURNE etorri dira (/) nirekin.

Nahikoa izango da, ordea, gure begi/belarriak zertxobait zabaltzea, aurkitzeko, egitura altubetarren ondoan, galdegaia aditzaren ondoretik daramatenak, aurrekoak bezain jatorrak eta ohizkoak, edo beharbada gehiago,<sup>12</sup> nola:

- (24) (Bada,) Etorri dira / MIREN eta EDURNE.
- (25) (Bada,) Etorri dira nirekin / MIREN eta EDURNE.
- (26) (Bada,) Nirekin etorri dira / MIREN eta EDURNE.
- (27) (Bada,) Etorri dira / MIREN eta EDURNE (/) nirekin.

Ohizkoa izango baita, hiztunak erantzunaren hasieran errepikatzea galderako elementu ezagun zenbait, finkatuaz marku predikatiboa, eta hartuaz ere erantzuteko denbora bat (*Bada*-ren bidez bezalaxe), ondorean bakarrik emateko benetako prediku/erantzuna. Azkue-Altuberen legeek arbitrarioki debekatzen dizkigute segidok. Baina berriro, euskaldun gehiengoak baztertu ordena bakarra litzateke, elementuren bat tartekatuko lukeena, galdegaia eta aditzaren artean:

- (28) (?) MIREN eta EDURNE (/) nirekin etorri dira.

Zergatik mugatu, orduan, euskara, erantzun-forma altubetarretara? Zergatik lapurtu euskaldunari hain erantzun modu zabalduak, eta hain ongi jarraitzen zaizkionak komunikazio estrategien eskakizunei? Bakarrik gaztelaniaz ere erabiltzen dituztelako antzeko segidak? Nola ez da gero artifiziala eta aspergarria gertatuko, gure gaur egungo prosa eskolatua? Nahikoa dugu, erdarari begiratzetik, erabakitzeke, zer den, eta zer ez den, euskal joskera! Euskara da, euskaldunek darabilten hizkuntza, erabili dutena, beren artean euskaraz komunikatzeko, eta ez bakarrik gure hizkuntzaren zati hura, kasualitatez gaztelaniaren erabat bestelakoa gertatzen dena. Begiraiogun, bada, euskarari eta euskaldunei, geure joskera erabakitzeke ere, jadaneko zuhurrago egiten hasi garen bezala hiztegegintzan edo gramatikaren beste alorretan.<sup>13</sup> Euskal joskera komunikatiboak, asko ikasi beharko du euskara komunikatiboenetatik, ahozko euskaratik, gure literatur tradizioetik, edota iparraldean oraindik mende honetan egin eta egiten den hartatik, askoz libreago gu baino aurreiritzi Azkue-Altubetar deformatzaileetatik.

## Oharrak

- 1 B. Hidalgo, *Euskal joskeraren mito kaltegarriak*, *Hizpide* 35, 39-51 orr. Bertan garatzen dira artikulua honen oinarritzko kontzeptu zenbait, nola bibliografia, etab.
- 2 *Hitz ordena*, 1987, EGLU-I (Eraskina), 22-3 orr.
- 3 Nahiz, gure egungo prosa eta gramatika eskolen bistara, beharbada edozeinek esango lukeen, ez dela munduan euskara baino ordena lotuagoko hizkuntzarik. Kontu hauek, ordea, ez dira zuhur egiten. Historikoki nolana, euskararen hitz ordena librearen erreibindikazioa, ia soilik, iparraldeko gramatikalariena izango da. Hala egingo du 1741ean lehenengo aldiz, Martin Harriet, Larresoro, Lapurdiko, *Notari Erreiala*-k dioenean (*Gramatica escuaraz eta frantsesez, composatva Francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan*, Baiona, 1741, 501 or.): «On place dans la langue basque indifferemment, le cas devant les verbes comme, *salcen dut ene etchea*, ou *ene etchea salcen dut*, je vends ma maison, &c.». Geroztik, gure iparraldean gramatikaz kezkatu diren guztiek goraiatu dute euskararen ordenamendu askatasun hori frantsesaren aldean. Hala nola Léclusek (*Grammaire basque*, 1826, 82 or.; ASJUK berrargitaratua, 1987, 813-916 orr.), Darrigolek (*Dissertation critique et apologétique sur la langue basque*, 1827, 142 or. eta hurr.), Chahok (D'Abbadie, A.Th.; Chaho J.A., *études grammaticales sur la langue euskarienne*, 170 eta 183 orr.), eta jada berriz jantzixeago, Inchauspek 1856an (*Notes grammaticales sur la langue basque*, VI or., eraskina *Jesus-Kristen Ebanjelio Saintia Sen Mathiuren arauéra*-ri; orain Euskaltzaindiak berrargitaratua in *Louis Lucien Bonaparte, Opera Omnia Vasconice*, II, 1991, 161-270 orr.), edo 1858an, dioelarik bere gramatika lan nagusia (*Le Verbe basque*, 430 or.; Hordagok berrargitaratua 1979an): «REGLES A SUIVRE POUR LE PLACEMENT DU VERBE. / I. La langue basque admet les inversions: ainsi on dit indifféremment: *háurrac éman zían eskúa améri*, l'enfant donna la main à sa mère, ou *améri eskúa éman zían háurrac*, ou *éman zían háurrac améri eskúa*, ou *eskúa háurrac améri éman zían* on peut avec ces mots faire vingt-quatre combinaisons différentes et toutes sont régulières.» Ondoretik, konbinaketa-joko beretsuak erakutsiko dituzte jada, Dartayet-ek 1867an (*Le mécanisme de la construction du verbe basque ... Extrait du Guide ou manuel de la conversation français-basque. Nouvelle édition*, 167 or.), Gèzek 1873an (*Éléments de grammaire basque*, 10 or.; Hordagok berrargitaratua 1979an), edota Ithurryk 1894ean argitaratzen hasitako *Grammaire Basque*-an (Hordagok berrargitaratua 1979an), non agerian jasotzen diren lau elementuko esaldiaren 24 konbinaketa posibleak, Euskaltzaindiak jaso bezala aitatu artikuluan. Halako eskola liberal sendo baten ondorean, ez da harritzekoa, XX mendean oraindik ere askoz askatasun handiagoz jokatzeko bada iparraldean hitz ordenaren eremuan, hegoalde honetan baino, itoak gauden bezala Cardaverzen eta Azkue-Altuberen eskolen itzalpean. Adibide hutserako, nola ematen duen Duvoisin kapitainak egitura komunikatibo oso desberdineko hiru esaldiotan (*Jenesa*, II, 14), «*Hirugarren hibayaren izena da Tigris: hura Asiria aldera dihoa. Ufrata da laugarren hibaya*», latineko *Bulgataren* itzulpena, «*Nomen verò fluminis tertii, Tigris: ipse vadit contra Assyrios. Fluvius autem quartus, ipse est Euphrates*», erakutsiaz, batetik, maisutasuna euskarazko hitz ordenamendu librearen erabilean, nola bestetik, independentzia latinezko ereduarekiko.
- 4 Kontutan hartu gabe aditz osagaien inbertsio (*da izango*) posiblearen ondoriozkoak.
- 5 Partaide bakoitzari bete behar duen rol bat ematen.
- 6 Jasoak asko, Nikolas Aldaik eta Euskadi Irratiak etengabe eskaintzen dituen *Mujikaren pertak* saioetan.
- 7 Zentzu honetan ondo ohargarriak gertatzen dira Villasanteren hainbat lanetan barreiatutako oharrak (ik. bibliografia aurreko artikuluan), nola segidakoa, 1956ko *Comunicación sobre la réplica...* interesgarritik (Euskera, 1956, 16 or.): «*Además, aún en el lenguaje hablado suele el pueblo apartarse con bastante frecuencia de estas reglas [Altuberen galdegaiarenak], y creo que hay razones prácticas de comodidad, etc., que explican este hecho. Una vez que a uno de ... [los] niños de Catecismo le mandó narrar la parábola del hijo pródigo recuerdo que empezó*

de la siguiente manera: / «Gizon batek eukan bi seme». / (Eso, después que a mí me la habían oído contar al modo consabido: / Gizon batek bi seme zeuzkan). / El hecho puede tener su explicación psicológica; echando primero el verbo, el narrador hace una pausa y tiene tiempo para pensar lo que tiene que decir a continuación. Y razones de este orden o parecido hay mil, que aún en el lenguaje hablado nos hacen apartarnos de las reglas de una sintaxis ideal.»

- 8 Artikulu honen hirugarren atalean hitz egingo dugu, euskaraz aditzaz hasten diren esaldion estatus berezien gainean.
- 9 Nahiz zenbaitetan berdinak ere gertatu ahal izan bi hizkuntzetan. Guri zer, ordea, erdaldunak ere baliatzen badira halako egiturez? Bejondeiela ere.
- 10 Eta horrexegatik funtzionatzen du Altuberen legeak beti esaldi laburretan, galdegaia ematen bada aditza eman aurretik, Altubek horren setati eskatzen duen bezala; edota zernahi kausaz, aditza esaldi-bukaeran gertatzen denean, orduan honen aurreko elementua ageriko baita bereziki enfatizatua, galdegaia eta aditzaren artean ez ohi denez beste elementurik tartekatu euskaraz. Hain zuzen, horrexegatik gertatzen dira ere horren bitxiak euskaraz, galdera hautsiak, esaldiko beste elementuren bat tartekatzen dutenak, galdegilea eta aditzaren artean (*Nor gaur egun joango da horrelako festa batera?* modukoak). Nahiz esan behar den, antzeko galdera hautsiak, salbuespen bezala bada ere, zeinahi autorerengan aurkitzen ahal ditugula gure literaturan. Izango da, ordea, eskola bat bederen, Cardaverazena, sistematiko praktikatu eta predikatu nahiko duena aditzaren atzeratze artifiziala esaldian, eta ondorioz, besteak baino askoz maizago emango dituen bere prosan galdera hautsiak, nola usu ere, esaldi bitxi askoak, elementu arrotzak tartekatuak erakusten dituztenak, artifizialki aurreratutako galdegaia eta artifizialki atzeratutako aditzen artean. Eskola, batez ere, giputz honen sortzaile eta buru izango da Aita Cardaveraz santutzakoa, bere 1760-66 bitarteko idatzi ugari eta eragin handikoekin. Eta jarraitzaile nabarmen izango ditu, bederen (bakoitza bere mailan), Bartolome Olaechea bizkaitarra, J. I. Guerrico segurarra, eta batik bat, F. I. Lardizabal eta G. Arrue giputzak, denak ere eragin ezagunekoak XIX mendeko letretan. Eskola honen itzala izango da, hegoaldean iritsiko dena, XIX mende bukaera eta XXaren hasierako euskal berpizte mugimendura, *Campion*, Txomin Agirre eta batez ere Azkuerekin, eta honen bidez Altubegana, eta guganaino ere, oraindik bixi-bixi. Iparraldean eskolak apenas izango duen oihartzunik garaian, Duvoisinengan salbu, *Liburu ederra* argitaratzen duenean Cardaverazen itzulpen, eta jada XX mende barrenean, Aita Lhande edota Lafitteren zenbait lanen bidez.
- 11 Villasanteren aitatu hariari jarraiki, galde-erantzun jokoan posibilitateen inguru, interesgarriak gertatzen dira P. Goenagak, *Gramatika bideetan* liburuan, egiten dituen hainbat erreflexio Altuberen legeen inguru (3. arg., 1985, 201-2 orr.).
- 12 Begiratu besterik ez, gure arteko *Dotrina* gaitzetsiei, zeinak diren besteak beste galde/erantzuneko elkarrizketa tipikoak.
- 13 Batik bat, Mitxelenaren *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren ingurutiko lanetan.